

# E

---

Euskararen etorkizuna lotua dago abian den biziberritze prozesuari eta ezin da hau gabe ulertu. Aurrera begira egindako lanaren atarian, prozesuaren irakurketa soziopolitiko egiten da, euskalgintzaren testuingurua marrazteko: 60ko hamarkadako larrialdiak eragin zuen ekimen loraldia; autonomiarekin agertu ziren ahalmen berriak eta lubakiak; bidean izandako arrakasta eta gabeziak; azken hamarkadan bistaratu diren ajeak eta horiek eragindako krisi aktiboa; itxaropena eragiten duen inflexioa, lankidetzan oinarritua...

**Giltza-hitzak:** Loraldia. Lubakia. Bidegurutzea. Krisi aktiboa. Inflexioa. Lankidetzaren publiko-soziala. Inteligentzia. Bizipoza.

## 1. Sarrera<sup>2</sup>

Eusko Ikaskuntzaren mendeurreneko kongresuari begira, e5 dinamikaren baitan Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen aritu gara bi urte luzez. Aurrera begira jardun dugu bereziki, baina euskararen etorkizuna lotua dago abian den biziberritze prozesuari eta ezin da hau gabe ulertu. Beraz, e5 dinamikaren talde eragilean beharrezkoa ikusi genuen egindako lanaren emaitzak aurkeztu aurretik biziberritze prozesuaren irakurketa soziopolitiko egitea, euskalgintzaren testuingurua marrazteko. Argitu dezadan, egiari zor: enkargua taldeak eman zidan baina irakurketa nirea da, ni naiz esango dudaren erantzule bakarra.

Azken kontu bat: ekintzatik nator, ez akademiatik; beraz, hitzaldi honen oinarria bizipenak dira, ez ikerketa.

## 2. Non gaude? Zertzelada batzuk

Euskararen biziberritze prozesuak baditu 50 urte inguru, 60ko hamarkadan sortu ziren bere zutabe diren hainbat ekimen. Lehen azpimarra bat: prozesuari esker urrats handiak egin dira; aldi berean, normala denez, denborak eragindako higadurak ere nabaritzen hasi dira azken urteotan.

‘Aro politiko berria’ deitu dena ere 2010eko hamarkadan etorri da. ETAREN amaiera eta Bildu erakunde handitan gobernatzen aritzea eragin handiko faktoreak izan dira. Oro har, distentsioa antzeman da esparru askotan eta aukera berriak ireki dira.

Badira hiru hamarkada datu soziolinguistikoak biltzen ari direla eta serie luze horiek emandako informazioaren baitan argi gorri batzuk piztu dira: adierazle batzuen hazkunde erritmoa apaldu egin da, sabairen bat agertu da, ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala handitu egin da... Kezkak eraginda, hamarkada honetan makina bat gogoeta egin da han eta hemen. Nik euskaltzaleen elkartean egin dut nire ibilbidea eta gogoan dut Euskaltzaleen Topaguneak 2010-11n egin zuela **oinarriparrak** eta **eraldabideak** identifikatzeko ariketa sakona, Topalabe taldearen ‘Berrikusi eta berrikasi’ dokumentuari bide eman ziona. Halaber, aipagarria da Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeak euskalgintzaren ekarpen askorekin ondutako ‘Eta hemendik aurrera zer?’ dokumentua. Bidegurutzeara aipatu izan da Irlandako mamua gogoan, berezko hizkuntzaren ezagutzak aurrera bai baina atxikimendu soziala eskasa denekoa, prozesua indartu ezean gurean ere gerta zitekeena adierazteko.

Egoera honen izenik egokiena Iñaki Markok asmatu zuen: krisi aktiboa. Krisian gaude, orain arteko jardun moldeak bere horretan ez digulako balio orain arteko erritmoei eusteko; eta aktibo gabiltza tresna berrien bila, aurrera egiteko palanka izan daitezten. Hain aktibo gaude, nire ustez bidegurutzeara atzean uzten hasi garela dagoeneko.

### 3. Nondik gatoz? Urrezko urteak

Kontraesana dirudi frankismo beteko aldi bati ‘urrezko urteak’ deitzea, baina soilik itxuraz dago kontraesana. Uste dut 60ko hamarkada izan dela euskararen historian unerik larrienetakoa, hogeitertetik gorako zapalkuntzaren ondorio sakonena bistaritzen ari zirelako; eta seguruenik larritasun horrek berak eragin zuen hil ala biziko sormen eztanda: euskara batua, ikastolak, gau eskolak...

70eko hamarkadan ekimen horiek garatu egin ziren, egiturak eta sareak sortuz, frankismo amaiera eta ondorengo giroa baliatuta. Askatasun egarria zen borroka guztien osagai komuna, eta euskara oso ondo kokatuta zegoen zoru komun horretan, ia askatasunaren sinonimo izateraino.

Garai honen adierazgarri iruditzen zait ‘24 ordu euskaraz’ ekimena. Herri irratiek ekimen arrakastatsua prestatu zuten Donostiako belodromoan, erakusteko posible zela euskarazko emisio jarraia, egingarri zela osorik euskaraz emitituko zuen irratia. Gaur euskal irratia ohiko bihurtu dira, baina ia ezerezetik gatoz, ez dezagun ahantzi.

### 4. Nondik gatoz? Lubaki aroa

Franco hil ondoren, Espainian ‘trantsizio’ delakoa abiatu zen, eta politikarako joko zelai berri bat sortu. Euskal Herrian zalantza sortu zen: edo joko zelai berria onartu –eta, beraz, legitimatu– edo hura borrokatu herri dinamiketarik, eragin-ahalmena galtzeko arriskuarekin.

Bidegurutzeara, 1977an Telesforo Monzonek Txibertara deitu zituen euskal indar politiko, sozial eta militarrek, erantzun bateratua adosteko helburuarekin, izan erantzun hori bat ala bestea. Eta ez zen akordiorik izan: batzuk hobetsi zuten herri mugimenduan jarraitzea, esparru berriari uko eginez; eta besteek hobetsi zuten sortuko ziren erakunde berrien aldeko apustua, herri dinamiketarik aldentuz.

Geroztik, monokultibo politikoa nagusitu da, erakundeetan bat eta herri mugimenduan bestea, eta bakoitzak bere lubakitik bestea borrokatzea izan du eginkizun. Euskararen biziberritze prozesuan ‘euskalgintza versus erakundeak’ dikotomia planteatu da, elkarren ukazioa praktikatu eta tarteko ekimenak susmagarri bihurtuta.

Lubaki aroaren ezaugarri dira bikoizkeria (egiturak edo ekimenak bikoizteko seta) edota sokatira (batura zero arrakasta gisa hartzea). Stephen Hawking fisikoaren zulo beltz kosmikoen modukoa izan da egoera hau, energia mordoa zurrupatu digu, biziberritze prozesuaren kaltetan.

Izan ere, lubaki aroan euskararen hiztun komunitatea zatituta egon da eta konfrontazioak baldintzatuta. Zailtasun handiak egon dira euskaltzaleen arteko zoru komuna lantzeko, eta horretan saiatu garenok egurra jaso dugu bi aldeetatik.

Egiari zor, dena ez da liskarra izan, lankidetzaz zubi batzuk mantendu dira hezkuntzan, euskalduntzean edota hizkuntzagintzan, salbuespen txalagarriak.

## 5. Non gaude? Inflexioa: Euskalgintza berria

Hasierako galderara itzulita, arestian aipatu dut nire ustea, alegia, bidegurutzetik aurrera abiatu garea berriro, ez gaudela duela bost urte geunden toki berean. Inflexio betean gaude, eta neronek bizi izandako lau adibide emango ditut.

Lehena da 2016an Gipuzkoako aldundian euskararen gizarte eragileekin hasitako partaidetza prozesua. Behin onartuta geldialdi edo bidegurutze batean geundela, geure buruari egin genion ondoko galdera: 'zer egin behar dugu desberdin eraginkorrago izateko?' Prozesua oso aberatsa izaten ari da eta une honetan emaitza zehatzetara iristeko puntuan dago; baina 2016an bertan utzi zuen emaitza esanguratsua. Euskalgintzaren berrikuntza palankak identifikatzen jarrita, hitz hauek gailendu ziren: teknologia, elkarlana, hiriak, lidergoa, berrikuntza, metodoak, minimoak adostu, identitateak... Musika berria da euskalgintzan gaur egun ere, eta are berriagoa zen 2016ko udaberrian. 'Zerbait mugitzen ari da' pentsatu genuen aldundian.

Bigarren mugarrira Santiago zubian kokatzen da, Hendaia eta Behobia artean. 2017ko udaberria zen, Korrika urtea. Antolaketak bikain kudeatuta, Euskal Herriko erakunde publiko eta gizarte erakunde guztien ordezkariek elkarrekin egin genuen kilometroa, zubia baliatuz eta elkarri eskua emanda. Borondate argia nabaritu zen denon aldetik une hura sinbolismoz betetzeko, gizarteari adierazteko han bildutakook prest geundela lankidetzan eskuz-esku jarduteko euskararen mesedetan.

Handik sei hilabetera, 2017ko udazkenean, ordezkariek bertsuak agertu ginen Bilboko Arriaga antzokian Euskaraldia aurkezteko. Ordezkariek bertsuak bai, baina oraingoan lankidetzaren emaitza bat aurkeztera gentozen, hain zuzen parez-pareko lankidetzan pentsatu, ondu eta kudeatuko genuen ekimen indartsu bat. Zinez uste dut egiteko modu honek azaltzen duela Euskaraldiak erakutsi duen biraltasuna, ziztu bizian hedatzeko gaitasuna.

Azken adibidea e5 prozesu hau bera da. Hemen ere, talde eragile askotarikoak bikain kudeatu dituzte prozesuaren zailtasunak; eta, mintegi irekietan izan den eragile askoren partaidetza bizian, enpatia handia erakutsi dute partaide guztiek, norberaren proposamenak besteekin uztartzeko, osatzeko, bateratzeko.

Lau mugarririk hauekin ausartzen naiz esatera azken urteotako inflexioaren ondorioz euskalgintza berria ari dela sortzen, iraganeko konfrontazio sistematikotik enpatiazko lankidetzaren publiko-sozial sistematikora igarotzen ari dena, gizarte eraldaketaren motore den gobernantza kolaboratiboaren parametrotan.

## 6. Non gaude? Inflexioa: Euskararen herria

Oso garrantzitsua da euskalgintzaren baitan egon den bilakaera, baina ez da inflexioaren adierazle bakarra; badira beste hainbat, esanguratsua oso.

Biziberritze prozesu indartsuari esker, euskara bihurtu da hizkuntza gaztea eta urbanoa. Adin tarte gazteenetan dago euskararen ezagutzarik altuena eta hirietan daude hiztun gehienak. Hau ezinbesteko baldintza da biziberritze prozesua suspertzeko.

Bestalde, arnaguneak igaro dira hizkuntza politikaren erdigunera, eta horri esker azaleratzen hasi dira euskararen dentsitate handiko gunetako dauden galerak eta arriskuak. Aldi berean, euskararentzat hainbat bide gorri eraikitzen ari dira, euskaraz funtzionatzeko harreman zirkuituak.

Hurbiletik ezagutu dudana adibide bat: GFaren diputatu kontseiluak euskaraz egiten dituzten bere bilerak azken hiru legealdietan. Hau are esanguratsua da kontuan izaten badugu hiru legealdi horietatik lehenean EAJ zegoela gobernuan; bigarrenean, Bildu; eta hirugarrenean, EAJ eta PSE.

Azken urte gutxiotan, eta aro politiko berriari esker, akordio politiko esanguratsua erdietsi dira Euskal Herrian: EUDEL udalen elkartearen gainekoa, Udal Legeari dagokiona, Nafarroan aldaketa gobernuan jarri duena, edota Iparraldeko Euskal Elkargoaren sorrera ahalbidetu duena. Akordio hauetan guztietan euskararen posizioa indartu egin da, denek egin diote euskarari mesede.

Eta amaitzeko, lehen aldiz aspaldiko mendeetan dauzkagu euskararen lurralde osoa hartzen duten hiru administrazioetan hizkuntza politika aktiboak euskararen alde. Hau gutxi balitz, hiru administrazio horiek badute hitzarmen bat hizkuntza politika horien osagai komunak elkarrekin lantzeko.

Hau guztia gogoan, esango nuke eraikitzen hasi garela 'euskararen herria'. Orain arte lurralde, erakunde edo eragile bakoitza bere esparrua kolore propioz markatzen saiatu den bezala, gero eta gehiago nabari da esparru bateratuan eta kolore antzekoetan jarduteko joera, bateratasunerako borondatea. Uste dut oinarria jartzen ari dela hizkuntza politika eta estrategia bateratua partekatzeke, hau da, kolore gama bakarra erabiltzeko, nahiz toki edo eremu bakoitzaren arabera tonalitate ezberdina hartuko duen.

Konbentzituta nago euskararen biziberritze prozesuak behar duela dimentsio nazional hau epe luzeko ikuspegia lantzeko; eta tresna komun indartsuak, epe ertaineko politikak eta jarduerak eraginkorrago bihurtzeko.

## 7. Nola egin aurrera? Jarrera kolektiboa

Ondorengo hizlariak azalduko dituzte e5 dinamikan ondu ditugun proposamenak euskararen etorkizuna eraikitzeko. Nik eman nahi nituzke pista batzuk etorkizuneko bide horri ekiteko komeni zaigun jarreraz.

Alde batetik, kontuan hartu behar ditugu dauzkagun mugak.

- Inguruan ditugun hizkuntza handiekin ez dugu euskararentzat berdintasunik lortuko; oreka bilatu beharko dugu, politika asimetrikoak erabilita, euskarari funtzio eta esparru propioak eskainita.
- Hizkuntza txikia izanik, baliabide mugatuak ditugu eta, beraz, derrigortuta gaude lehenetsunak ezartzera, honek eransten dituen zailtasunekin
- Babes juridiko eta faktiko subordinatua daukagu, margo legalak eta indar faktikoak dauzkagu gainetik, ezin dugu nahi genukeen guztia egin.
- Diskurtso aldetik, euskara ez da dagoeneko askatasunarekin lotzen; alderantziz, bozgorailu indartsuak daude euskara sistematikoki arazoekin lotzen dutenak.

Hala ere, muga horiek gainditzeko baditugu indarguneak: gero eta gehiago, elkarrekin ari gara euskararen gizarte erakundeak eta erakunde publikoak, baita euskararen erakundeak eta gainontzekoak; euskararen mugetatik harago jokatzeko hasi gara, euskararentzat hegemonia esparruak irabazteko; eta

ikusten ari gara euskaltzaleon posizio soziala indartzea garrantzitsua dela euskararena gurekin batera indartu dadin.

Irekitasuna behar dugu aurrera begira. Oso 'monoteista' jokatu dugu iraganean, 'hau horrela da eta kitto!' esan izan dugu sarri; baina gizarte konplexua da, polizentrikoa ikuspegi aldetik. Molde bakarrean jardutea baino jardunen sinkronizazioa bilatu behar dugu; helburu bakarra adosten tematu ordez, helburuen konstelazioak antolatzen ikasi behar dugu. Dena den, honetaz luzeago arituko da gero Iñaki Marko. Nik hemen aipatu nahi nuke gurera ere iritsi den hizkuntza aniztasunak irekitzen digun aukera: espainolarekin edo frantsesarekin binomioan jokatuta, euskara usu izango da bigarren mailakoa; aldis, hizkuntza askoren artean, posibleago da euskararentzat funtzio eta esparru propioak aurkitzea, prestigioa emango diotenak.

Ezagutza baliatzea dugu beste erronka potolo bat. Duela 50 urte ez genekien ezer soziolinguistikaz, eta erraz sinetsi genuen euskara ikasi ahala jendeak euskaraz egingo zuela automatikoki. Gaur badakigu hizkuntza hautatu egiten dela, eta mekanismo sozialek eta pertsonalek eragiten dutela hautu horretan; aztertzen ere hasi gara hautuaren mekanismoak, euskararen alde eragiteko. Diziplina askotatik jaso ditzakegu ikasgaiak gure prozesuan aplikatzeko, baita hainbat mugimendu sozialen eskarmentutik ere. Horregatik aldarrikatzen dut behar dugula ezagutza soziolinguistikoa eta ikerketa modu sistematikoan kudeatuko duen erakunde nazional bat, epe luzeko ikuspegiarekin eta partaidetza irekian oinarrituta, hizkuntza politikak eta dinamika sozialak elikatzen arituko dena.

Ezin ahaztu inteligentzia. Indarrez ahulago denak ezinbestean behar du inteligentziaz azkarrago izan. Ausartu behar dugu teknika ezberdinak gure alde erabiltzen: marketina, merkatu azterketa, salmenta, management-a... Gure arteko konfrontazioetan beti gogoratu behar dugu euskaltzaleok zenbat gauzatan gauden ados, gehiegitan pentsatu izan dugulako puntu batean ez dugunean bat egiten ez gaudela ezertan ados. Eta ondo hautatu behar ditugu erreferentziak eta ereduak: hizkuntza gutxituen artean oso aurrean gaude eta badugu haiekiko erantzukizuna; baina asko interesatzen zaigu, era berean, hizkuntza txikien liga, hauengandik ere ikas dezakegulako hizkuntza hegemonikoen nagusitasunari nola aurre egin.

Finen, hizkuntza gutxitua hautatu dugu euskaltzaleok eta hautu horrek lana dauka berarekin. Erosotasuna lehenetsi izan

bagenu, hegemonikoren bat hautatuko genuen. Bistan da, hizkuntza hegemonikoak beti du inertzia alde: ezer egiten ez bada, berak irabazten ditu esparruak eta funtzioak. Aldiz, euskararen alde egiten dugunean, mundua eraldatzen ari gara, gure alea jartzen ari gara mundua hobetzeko, berdintasunera bidean. Hor aurkitu behar dugu etengabe euskararen alde egiteko motibazioa. Horrez gain, ezinbestekoa da ibilbidea adostea eta erritmo egokia hartzea, itolarririk eta agoniarik gabe irauteko. Hain zuzen, hori da euskaltzaleoi proposatzen dizuedan jarrera: ondo neurtu egitekoak eta indarra; eta gero, bizipozez iraun!<sup>3</sup>

---

## Oharrak

---

1. Eusko Ikaskuntzako e5 talde eragileko kidea.
2. Hitzaldi honek badu aurrekari bat: 2016an UEUren ikastaro baten baitan egin nuen lehen aldiz honen moduko irakurketa bat, eta haren bertsio idatzia –neronek idatzia– txertatu zuten ‘Euskararen biziberritzea’ izenarekin UEUK berak 2017an kaleratutako argitalpenean. Gasteizko hitzaldi hau haren moldaketa bat da, gertakari berriekin osatua eta kongresu orokorraren markoari egokitua. Aldiz, idazketa –esandakoaren transkripzioa, kasik– guztiz berria da, memoriaren tranpak gora behera.
3. Nik ‘iraun’ esan nuen ‘eutsi’ adieran, jarraikortasunaren garrantzia azpimarratzeko; baino ondorengo hizlari batek (Joseba Barandiaranek) erakutsi zidan konformismoa ere adierazten zuela. Beraz, ulertu behar da ‘bizipozez jarraitu!’